



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 12a

4. ZK.

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—10-22/LEY-00018. 36/2022 Foru Legea, abenduaren 28koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Akats zuzenketa (2. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—PER20220051. Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila). Berraztertze-errekurtsoa (3. or.).

—PER20220016. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi transkribatzaile-postu betetzekoa, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du. Izendapen-proposamena (4. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren funtzionamenduari buruzko Erregelamendua (5. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**10-22/LEY-00018. 36/2022 Foru Legea, abenduaren 28koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.**

**AKATS ZUZENKETA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legean zenbait akats atzeman da. Foru Legea 2022ko abenduaren 29ko 152. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa hauek egin dira:

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina. Hogeita hamazazpigarren apartatua:

Honako hau esan ordez:

*Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria.*

Honako hau esan behar du:

*Hirurogeita bederatzigarren xedapen gehigarria.*

Hamabigarren artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legea, hirugarren apartatua, 4. tarifa, "Erregistroaren publikotasuna", 1. apartatuan:

Honako hau esan ordez:

---

<i>1.- Gordailatutako kontabilitate-agiriaren kopia bakoitzeko</i>	98
--	----

---

Honako hau esan behar du:

---

<i>1.- Gordailatutako kontabilitate-agiriaren kopia bakoitzeko</i>	9
--	---

---

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**PER20220051. Enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoa, merezimenduen lehiaketa bitartez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain-lanpostu huts bat (D maila).**

**Berraztertze-errekurtsoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2022ko abenduaren 23an, Parlamentuaren Erregistroan aukerako berraztertze-errekurtso bat aurkeztu da honako deialdi hau dela-eta: merezimenduen lehiaketa bitartez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikari lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikari lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizial lanpostu huts bat (C maila) eta gelazain lanpostu huts bat (D maila) betetzeko enplegu-egonkortze deialdi salbuespenezkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.-** Aukerako berraztertze-errekurtso horren berri izan duela adieraztea.

**2.-** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin kasuko iragarpena.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA**  
**merezimenduen lehiaketa bitartez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikariaren lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazainaren lanpostu huts bat (D maila) betetzeko enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoari buruzkoa.**

Enplegu publikoaren alorrean behin-behinekotasuna murrizteko egonkortasun-prozesuen esparruan, merezimenduen lehiaketa bitartez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko komunikazio-teknikariaren lanpostu huts bat (A maila), administrazio-kudeaketako erdi mailako teknikariaren lanpostu huts bat (B maila), mantentze-lanetako teknikari-ofizialaren lanpostu huts bat (C maila) eta gelazainaren lanpostu huts bat (D maila) betetzeko enplegua egonkortzeko deialdi salbuespenezkoan, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2022ko abenduaren 12ko bilkuran emandako Erabakiaren bidez onetsitakoan (259. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2022ko abenduaren 27koa), horrek onesten baitu deialdia.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118. eta 45. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, interesdun guztiei jakinarazten zaie, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita gehienez ere hamar egun balioduneko epean alegazioak aurkez ditzaten, zeinak Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko diren, Iruñeko Navas de Tolosa

kaleko 1. zenbakian, edo indarreko administrazio-araudian xedatutako bestelako erregistroetan.

Jarritako errekursoaren kopia bat lortzeko, interesdunek Nafarroako Parlamentuaren Erregistro Orokorraren helbide elektronikoaren bidez

(registro@parlamentodenavarra.es) eskatzen ahalko dute bidal diezaietela aurkeztutako berraztertze errekurtoa, eta, ondorio horretarako, helbide elektroniko bat eman beharko dute eskabidean, horra bidaliko baitzaie errekurtoa.

---

## **PER20220016. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi transkribatzaile-postu betetzekoa, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du.**

### **Izendapen-proposamena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 2ko erabakiaren bidez, deialdi bat onetsi zuen, 2022ko maiatzaren 18ko 96. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2022ko maiatzaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi transkribatzaile-postu betetzekoa, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du. Deialdi horretako epaimahaiak izendapen-proposamen bat aurkeztu du 2023ko abenduaren 23an, Fernando Mauleón de Antonio jauna eta Nerea Martín Cestao andrea izangaien alde.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 5. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 37. artikuluan ezarritakoarekin bat, ERABAKI DA:

**1.** Onestea aipatu deialdiko epaimahaiak egindako izendapen-proposamena, Fernando Mauleón de Antonio jauna eta Nerea Martín Cestao andrea (euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna) izangaien aldekoa. Deialdia zen oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi transkribatzaile-postu betetzekoa, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du.

**2.** Fernando Mauleón de Antonio jaunari eta Nerea Martín Cestao andreari eskatzea Legebiltzarreko Erregistro Orokorrean aurkez dezaten deialdiko 8.3 oinarrian adierazten den dokumentazioa, 30 egun naturaleko epean erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

**3.** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren funtzionamenduari buruzko Erregelamendua.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, beste batzuen artean:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2020ko uztailearen 3ko Erabakiaren bidez, Agtic Consulting SL enpresari esleitu zitzaion "Nafarroako Parlamentuan Administrazio Elektronikoa Bultzatzeko Bulego Tekniko" batek eman beharreko aholkularitza-zerbitzuaren kontratazioa. Honako hauek dira enpresa esleipen-hartzailearen eginkizunak, besteak beste:

- Laguntza eta aholkularitza ematea, edozein unetan, Parlamentuko eta Administrazio Parlamentarioko organoei, administrazio elektronikoa ezartzeko prozesuan parte hartzen dutenei.

- Plegu honetan aipatzen diren baldintza teknikoetan zehaztutako zereginak egitea, bai eta "39/2015 Legea (APAPPEL) betetzeko dokumentu-kudeaketaren bide-orria" dokumentua aplikatzetik sortzen diren gainerakoak ere.

Agtic Consulting SL enpresak dokumentuen alorrean emandako aholkularitza-zerbitzua honetan datza: xedapen arauemaileen zenbait proposamen idatzi ditu, Nafarroako Parlamentuan administrazio elektronikoa abian jartzeko oinarri tekniko eta juridiko gisa balio behar dutenak, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoak, gai horri buruz ezarritako aurreikuspenak betetze aldera.

Xede horretarako, Bulego teknikoak aholkularitza eman du administrazio elektronikoaren alorrean, zenbait ikuspegitatik, hala nola ikuspegi juridiko, dokumental, artxibistiko eta teknologikotik, eta arau-dokumentuen proposamenak aurkeztu eta eguneratu ditu bata bestearen jarraian, zeinak Ganberako zerbitzuek ikertu eta aztertu dituzten beren eskumen organikoari jarraikiz.

2022ko abenduaren 13ko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Administrazio Elektronikoaren Batzordeak erabaki zuen Ganberako Mahaiari igorriko ziola Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren etorkizuneko funtzionamendua arautuko duten xedapenen multzoa, esparru juridikoan, dokumentalean eta teknologikoan xedatu ere. Honako hauek osatzen dute xedapenen multzo hori:

- Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren funtzionamenduari buruzko erregelamendua.

- Nafarroako Parlamentuko artxiboari eta dokumentuen kudeaketari buruzko erregelamendua.

- Nafarroako Parlamentuko dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika.

- Nafarroako Parlamentuaren identitate eta sinadura elektronikoei buruzko politika.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari dagokio lehenengo bi xedapenak aztertzea eta, hala badagokio, onestea, bai eta Dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika eta Identitate eta sinadura elektronikoei buruzko politika ezagutzea ere, zeinak onestea Ganberako Idazkaritza Nagusiari dagokion. Horiek horrela, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1. Honako xedapen hauek onestea:**

- Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren funtzionamenduari buruzko erregelamendua.

- Nafarroako Parlamentuko artxiboari eta dokumentuen kudeaketari buruzko erregelamendua.

**2. Adieraztea honako arau-proposamen hauen berri izan duela:**

- Nafarroako Parlamentuko dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika.

- Nafarroako Parlamentuaren identitate eta sinadura elektronikoei buruzko politika.

3. Honako xedapen hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agintzea:

- Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoen funtzionamenduari buruzko erregelamendua.

- Nafarroako Parlamentuko artxiboari eta dokumentuen kudeaketari buruzko erregelamendua.

4. Erabaki honen berri ematea Nafarroako Parlamentuko Administrazio Elektronikoen Bartzordeko kideei, Ganberako Zerbitzuen burutzei eta Agtic Consulting SL enpresari.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoen funtzionamenduari buruzko Erregelamendua**

Aurkibidea

HITZAURREA

I. TITULUA

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua
2. artikulua. Printzipio orokorrak
3. artikulua. Hizkuntza araubidea
4. artikulua. Harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzera behartuak

II. TITULUA

5. artikulua. Egoitza elektronikoa
6. artikulua. Egoitza elektronikoen titulartasuna eta ardura
7. artikulua. Egoitza elektronikoen edukia
8. artikulua. Egoitza elektronikora sartzeko eta hura erabiltzeko baldintza teknikoak

III. TITULUA

9. artikulua. Nafarroako Parlamentuko erregistro elektronikoen xedea eta helburua
10. artikulua. Erregistro elektronikoen dokumentuak onartzea
11. artikulua. Erregistro elektronikoen kudeaketa eta segurtasuna

12. artikulua. Erregistro elektronikorako sarbidea, horren funtzionamendua eta dokumentuen aurkezpena

13. artikulua. Erregistro elektronikora sartzeko eta hura erabiltzeko baldintza teknikoak

IV. TITULUA

14. artikulua. Egoitza elektronikoen identifikazioa

15. artikulua. Identifikaziorako, autentifikaziorako eta sinadura elektronikorako sistema

16. artikulua. Zigilu elektronikoen sistemak

17. artikulua. Egiatzapen kode seguruaren sistemak

18. artikulua. Parlamentarien eta Legebiltzarreko langileen sinadura elektronikoa

19. artikulua. Egoitza elektronikoen erabiltzaileen identifikazio elektronikoen motak

20. artikulua. Sinadura elektronikoi eta ziurtagiriei buruzko politika

V. TITULUA

21. artikulua. Dokumentu elektronikoen kudeatzeko politika

22. artikulua. Dokumentu elektronikoa

23. artikulua. Espediente elektronikoa

24. artikulua. Espediente elektronikoen osagaiak

25. artikulua. Dokumentu elektronikoen kopiak

26. artikulua. Digitalizazioaren bitartez dokumentu elektronikoen sortzea

27. artikulua. Artxibo Elektronikoa

28. artikulua. Jatorrizko dokumentuak ezabatzea

VI. TITULUA

29. artikulua. Interesdunek sarbidea izatea elektronikoki kudeatutako prozeduren tramitazio-egoe-rara

30. artikulua. Jakinarazpen elektronikorako bitartekoak eta sarbideak

31. artikulua. Jakinarazpen elektronikoen hartzaileak

33. artikulua. Nafarroako Parlamentuko jakinarazpen elektronikoen sistema

34. artikulua. Jakinarazpen elektronikoa eta hura hartzeari uko egin izana jasota uzteko eta horien iraupenerako bermeak

35. artikulua. Administrazio-jardun automatizatua

36. artikulua. Administrazio-jardun automatizatua onestea

37. artikulua. Prozedura automatizatuen garapena

38. artikulua. Sinadura elektronikorako mekanismoak

Lehen xedapen iragankorra. Egoitza elektronikoa abian jartzea

Bigarren xedapen iragankorra. Erregelamenduak indarra hartu baino lehen hasitako espedienteak izapidetzea

Azken xedapenetako lehena

Azken xedapenetako bigarrena

I. eranskina: Administrazio-jardun automatizatua aplikatuko zaien prozeduren taula

### HITZAURREA

Azken urteetan, komunikazioa errazten duten teknologien bilakaerak sakonki aldarazi ditu gure gizartearen dinamikak, eremu digitalera ekarriz jarduera ekonomikoaren, sozialaren eta politikoa-ren hainbat arlo, gero eta zabalago eta konplexuagoak.

Administrazioaren efizientzia handitu egin da, eta zerbitzu publiko berriak eskaintzeko aukera dago. Faktore horiek gaur egun garrantzia dute pertsonen bizi kalitatea ez ezik gizartearen kohe-sioa ere hobetzeko.

Telekomunikazio sareen eta sistema informati-koen etengabeko berrikuntzak aldarazi egin du pertsonak elkarrekin eta hornitzaile, bezero, elkar-te eta abarrekin harremanetan aritzeko modua. Erakundeetan, berriz, arau indardunak berrikun-tzetara egokitu beharra dago horien onurak baliatu ahal izateko, horrela administrazioek bitarteko elektronikoez beren eskumenak baliatu eta beren zerbitzuak eskaini ahal izan ditzaten erabateko baliozkotasun juridikoarekin.

Helburu horrekin aldarrikatu ziren ekainaren 22ko 11/2007 Legea, herritarrek zerbitzu publikoe-tan sarbide elektronikoa izateari buruzkoa, eta hura garatzen duten arauak: 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektro-nikoaren esparruko Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen duena, eta 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Elkarreragingarritasu-nerako Eskema Nazionala arautzen duena. Arau horiek jauzi kualitatibo egin zuten teknologiei bul-tzada emateko administrazio publikoen jardunean eta haien eskumenean erabileran. Arau horiek guz-tiek eragin sakona izan dute administrazio publiko-

etan eta, zer esanik ez, Administrazio parlamenta-rioan.

Gero, 11/2007 Legea indarrak gabe utzi zuten Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak; azken horrek sektore publikoaren kudeaketa guztiz elek-tronikoaren asmo handiko eredu bat sendotzen du. Lege horiek ezartzen dute izapidetze elektroni-koak administrazio publikoen ohiko jarduna izan behar duela, hobeki betetzeko eraginkortasun eta efizientzia printzipioak, kostuak aurrezteko bete-beharra, gardentasun betebeharrak eta herritarrentzako bermeak. Lege horietan aztergai dira, besteak beste, erregistro elektronikoa, administrazio prozeduran interesdunak identifika-tzeko sistemak, administrazio publikoek emanda-ko agirien kopien baliozkotasuna eta eraginkorta-suna eta haien artxiboa, eta administrazio publikoek elkarren arteko harremanak bitarteko elektronikoen bidez gauzatzeko betebeharra, bai eta elkarreragingarritasunerako eskema naziona-laren eta segurtasunerako eskema nazionalaren aplikazioa ere.

Nafarroako Foru Komunitatean ere arauak ezarri dira Administrazioak bitarteko elektroniko eta telematikoak erabiltzeko buruz, batez ere lege hauetan: 11/2007 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elek-tronikoa ezartzeko; 5/2018 Foru Legea, garden-tasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa; eta 11/2019 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Institutuzionalari buruzkoa. Arau horiek guztiak aintzat hartu dira erregela-mendu hau egitean.

Nafarroako Parlamentuak hautatu duen estra-teria da erabat atxikitzea administrazio elektroni-koaren ereduari, eta ez egintza eta prozedura administrazioetan bakarrik, jarduera parlamenta-rio osoan baizik. Horretarako, erabaki du adminis-trazio elektronikoen alderdi nagusiak jasotzen dituen funtzionamendu erregelamendu bat ones-tea, gainerako administrazio publikoetan indarra duten printzipio eta arauak Legebiltzarraren tamai-nara eta beharretara egokitzen dituen.

Arau honek sei titulu, bi xedapen iragankor eta azken bi xedapen ditu. I. tituluak Nafarroako Par-lamentuaren esparruan bitarteko elektronikoen erabilera arautuko duten printzipio orokorrak ezar-tzen ditu. II. tituluak gure erakundearen egoitza elektronikoen sorrera, titulartasuna eta eran-tzukizuna eta gutxieneko edukiak arautzen ditu, bai eta sarbiderako eta erabilerarako betekizun



teknikoak ere. III. tituluak erregistro elektronikoa-  
ren xedea eta helburua zehazten ditu, bai eta agi-  
riak onartzeko betekizunak, agirien kudeaketa eta  
segurtasuna eta sarbiderako eta erabilerarako  
baldintza teknikoak ere. Gainera, labur arautzen  
ditu komunikazio eta jakinarazpen elektronikoa.  
IV. tituluak identifikazioari, autentifikazioari eta  
sinadura elektronikoa buruzko arauak ezartzen  
ditu. V. tituluak Nafarroako Parlamentuko agiri  
elektronikoen kudeaketa, espediente elektronikoa  
eta artxibo elektronikoa arautzen ditu. Azkenik, VI.  
tituluak gure esparruko prozeduren kudeaketa  
elektronikoari dagozkion printzipioak zehazten  
ditu.

## I. TITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Arau honen helburua da bitarteko elektronikoa-  
ren erabilera arautzea, Nafarroako Parlamentuko  
jarduera parlamentario eta administratiborako.  
Bereziki, honako hauek arautzen dira: interesdu-  
nekiko komunikazio elektronikoen modalitateak,  
agiri eta espediente elektronikoen erabilera, eta  
Parlamentuko jardueretan parte hartzen duten  
pertsonek identifikatzeko eta sinatzeko sistemak.

### 2. artikulua. Printzipio orokorrak

1. Printzipio orokor hauen bidez arautzen da  
Nafarroako Parlamentuaren eta haren administra-  
zioaren esparru elektronikoko funtzionamendua:

a. Sinplifikatzearen printzipioa. Nafarroako Par-  
lamentuak prozedura elektronikotako izapideak  
eta ebazpen epeak laburtu behar ditu, prozesuen  
sinpletasun eta integrazio handiagoak lortu eta  
herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko.

b. Bitarteko elektronikoa erabiltzera behartuak  
ez daudenak halakoak erabiltzera bultzatzeko  
printzipioa. Parlamentuak, bere jardueretan, bitar-  
teko elektronikoen erabilera sustatu behar du  
halakoak erabiltzera behartuak ez dauden herrita-  
rrekiko harremanetan, erregelamendu honen 4.  
artikuluak aurreikusten duen moduan.

c. Bitartekoen intermodalitatearen printzipioa.  
Aplikazioek eta informazio sistemak bide eman  
behar dute bitarteko elektronikoa erabiltzera  
behartuak ez dauden interesdunek aldatu ahal  
izan dezaten Parlamentuarekiko harremanetarako  
erabiltzen duten bidea, eta bermatu egin behar  
dituzte prozeduraren osotasuna eta segurtasun  
juridikoa. Administrazio prozedura bat izapidetu  
bitartean interesdunek erabakitzen badute bitarte-  
ko elektronikoa erabiltzea edo ez erabiltzea edo  
harremanetarako bidea aldatzea, aukera horrek

inola ere ezin izanen du murrizketarik edo diskri-  
minaziorik eragin sarbide elektronikoa.

d. Proporzionaltasunaren printzipioa Parla-  
mentuak izapideen eta jarduketan izaerarako eta  
inguruabarretarako egokiak diren neurriak baino  
ez ditu exijitu behar, eta transakzioen segurtasuna  
bermatu beharrak ez du oztopatu behar erakunde-  
rako sarbide elektronikoa.

e. Neutraltasun teknologikoa printzipioa.  
Legebiltzarrak informazioaren teknologien bilakae-  
raren arabera hautatuko ditu erregelamendu  
honetan aurreikusitako jarduketak eta prozedurak  
gauzatu ahal izateko bitarteko elektronikoa.

f. Trazabilitatearen printzipioa. Parlamentuak  
arduratu behar du Legebiltzarraren eta herritarren  
arteko harreman elektronikotarako sistemak eta  
aplikazioak diseinatu eta ezar daitezzen Segurtasu-  
nerako Eskema Nazionalaren (SEN) zehaztapenei  
jarraituz.

g. Informazioaren eta zerbitzu elektronikoen  
kalitatearen printzipioa. Parlamentuak herritarrei  
bermatu behar die informazio osoa, eguneratua,  
antolatua, argia eta ulertteraza eskuratu ahal izat-  
tea. Dokumentuak kudeatzeko tekniken erabilerak  
ahalbidetu behar du dokumentuak kontserbatu eta  
haien osotasuna eta elkarreragingarritasuna  
bermatzea, bai eta jarduketan trazabilitatea eta  
eskumen-erabileraren autentifikazioa ere. Orobat,  
datu pertsonalak babesteko araudia betetzen dela  
bermatu behar du.

h. Arduraren printzipioa. Parlamentuak ardura-  
tu behar du hedatzen den informazio publikoaren  
egiazkotasun eta benetakotasuna eta bitarteko  
elektronikoen bidez eskaintako zerbitzuen kalita-  
tea bermatzeaz, legeria indardunaren arabera.

i. Gardentasunaren printzipioa. Parlamentuak  
arduratu behar du bermatzeaz herritarrek jakin  
ahalko dutela Parlamentuak nola betetzen dituen  
bere eginkizunak eta zertarako erabiltzen dituen  
bere baliabideak.

### 3. artikulua. Hizkuntza araubidea

Bitarteko elektronikoen erabilera hizkuntza  
arloan legeria orokorraren bidez eta Legebiltzarrak  
emandako arau eta gidalerroen bidez arautuko da.

4. artikulua. Harremanetan bitarteko telemati-  
koak erabiltzera behartuak

1. Administrazio parlamentarioarekiko harre-  
manetan bitarteko telematikoak erabiltzera behar-  
tuak daude:

a. Parlamentariak eta talde parlamentarioak.



b. Parlamentarien eta taldeen zerbitzuko langileak, horiek izendatzeko modua edozein izanik ere.

c. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko langileak.

d. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluari jarraikiz behartuta dagoen beste edozein pertsona edo erakunde.

2. Parlamentuak aholkularitza tekniko eskainiko du, aurreko a, b eta c letretako pertsonak behar dituzten bitarteko elektronikoak erabili ahal izanen dituztela bermatzeko.

## II. TITULUA

### Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa

#### 5. artikulua. Egoitza elektronikoa

1. Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa sortzen da.

2. Egoitza elektronikoa helbide elektronikoa bat da, non argitaratuko baitira Nafarroako Parlamentuaren zerbitzu elektronikoak eta segurtasun-, kalitate- eta erantzukizun-berme bereziak behar dituen informazioa.

3. Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa bakarra izanen da haren organo guztientzat.

4. Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoen bidez gauzatuko dira jarduketak, prozedurak eta zerbitzuak, baldin eta haietan autentifikazio mekanismoak erabili behar badira –herritarrenak, beste erakunde batzuenak nahiz Nafarroako Parlamentuarenak– bitarteko elektronikoen bidez elkarrekin dituzten harremanetan; halaber, Parlamentuko Mahaiak zerbitzuak eraginkortasunez eta kalitatez ematearren erabakitzen dituen gainerakoak ere gauzatuko dira egoitza elektronikoen bidez.

**6. artikulua.** Egoitza elektronikoen titulartasuna eta ardura

1. Egoitza elektronikoen titulartasuna Nafarroako Parlamentuari dagokio.

2. Nafarroako Parlamentuko Idazkaritza Nagusiari dagokio egoitzan herritarren eskura jarritako edukia eta zerbitzuak kudeatzeko ardura. Behar diren neurriak hartuko ditu, egoitzaren publikotasun ofiziala, identifikazioa, irisgarritasuna, eskuragarritasuna, osotasuna eta segurtasuna araudi indardunean ezarritakoarekin bat etor daitezen. Halaber, bermatuko du egoitza elektronikoa sar-

bidea ematen duela araudi indardunean adierazitako zerbitzu, prozedura eta informazio guztietara.

#### 7. artikulua. Egoitza elektronikoen edukia

1. Hau izanen da egoitza elektronikoen guztieneko edukia:

##### 1.1. Eduki nagusia:

a) Egoitza elektronikoen identifikazioa, bai eta titulartasun den organoarena eta egoitzaren kudeaketaz eta bertan eskaintzen diren zerbitzuez arduratzen diren organoena ere.

b) Egoitzaren eta egoitzatik sarbidea izanen duen erregistro elektronikoen sorrerari buruzko araua.

c) Administrazio-jarduketa automatizatuarentako zigilu elektronikoak eta egiaztapen kode seguruak sortzen dituzten ebazpenak.

d) Iragarki-taula elektronikoa.

e) Egoitza elektronikoa ongi erabiltzeko behar den informazioa, eta jabetza intelektualarekin, datu pertsonalen babesarekin eta irisgarritasunarekin zerikusia duena.

f) Egoitza elektronikoen bidezko informazio eta komunikazioek konfidentzialtasun, osotasun eta eskuragarritasun baldintzak betetzeari buruzko informazioa.

g) Egoitzan eskura dauden izapideen eta zerbitzuen katalogoa.

h) Egoitzan eskura dauden administrazio elektronikoko zerbitzu komunak.

i) Egoitzan eskura dauden zerbitzuetarako sarbideen identifikazioa, eta, kasua bada, zerbitzuetarako sarbidea ematen duten bulegoen helbide elektronikoa, telefono zenbakiak, fax zenbakiak eta posta helbideak.

j) Egoitza elektronikoen ziurtagiria egiaztatze sistemak.

k) Egoitza elektronikoen onartzen edo erabiltzen diren sinadura sistemen eta ziurtagiri elektronikoen zerrenda, eta zer prozeduratarako balio duten.

l) Erregistro elektronikorako sarbidea.

m) Espedienteen tramitazio egoerarako sarbidea.

n) Data eta ordu ofizialak.

o) Egun balioudunen eta baliogabe deklaraturako egunen egutegia.

p) Kexa eta iradokizunentarako postontzia.

q) Kontratzailearen profilerako eta Sektore Publikoko Kontratu Publikoari buruzko Legean jasotako gainerako zerbitzuetarako sarbideak.

r) Araudi indardunean eskatutako beste edozein zerbitzu, prozedura edo informazio.

1.2. Eduki osagarria:

a) Erabiltzaileentzako aholkularitza zerbitzuak, egoitza elektronikoa ongi erabil dezaten.

b) Ezinbesteko arrazoi teknikoengatik aurreikusitako etenaldien plangintzari buruzko informazioa.

c) Nafarroako Parlamentuak beste administrazio batzuekin egindako hitzarmenak, erregistro elektronikoa eta administrazio elektronikoko zerbitzuak elkarri onartzea eta datuak trukatzeko xede dutenak.

d) Egoitza elektronikoa erabiltzen diren zigilu elektronikoen ziurtagiriak egiaztatze sistemak.

e) Datu zerbitzuaren bitartez kontsultatzen ahal diren datu eta dokumentuen zerrenda.

f) Sinadura elektronikoa buruzko politika, eta erregelamendu hau garatzeko beste araudi batzuk.

g) Zer formatu onartzen diren erregistro elektronikoa dokumentu elektronikoa aurkezteko.

h) Egiaztapen kode seguruaz kautotu diren dokumentuen benetakotasunaren eta osotasunaren egiaztapena.

2. Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa, edukietarako eta zerbitzuetarako sarbidea gaztelaniaz eta euskaraz izatea bermatuko da.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak beste eduki batzuk sartzen ahalko ditu egoitza elektronikoa, artikulua honetan aipatzen direnez gain.

4. Idazkaritza Nagusiaren ardura izanen da helbide elektronikoa eta organoen izenak eguneratzea, bai eta egoitza elektronikoa eskura dauden zerbitzuetarako sarbideen zerrenda eta ezaugarriak ere.

**8. artikulua.** Egoitza elektronikora sartzeko eta hura erabiltzeko baldintza teknikoak

Egoitza elektronikoa bidez eskaintzen diren informazio, zerbitzu eta prozedura elektronikoen irisgarritasunaren, berdintasunaren eta erabilgarritasunaren printzipioak beteko dituzte.

Egoitza elektronikoa eskuragarri egonen da egoitza elektronikora bertara eta Nafarroako Parlamentuko erregistro elektronikora sartzeko erabiltzen ahal diren sistema operatiboaren eta nabigatzaileen zerrenda, bai eta dokumentu elektronikoa onargarrien formatua ere.

### III. TITULUA Erregistro elektronikoa

**9. artikulua.** Nafarroako Parlamentuko erregistro elektronikoa xedea eta helburua

1. Nafarroako Parlamentuak erregistro elektronikoa bakarra du, eta han utziko dira jasorik dokumentuen sarrerak eta irteerak. Erregistroa izanen da dokumentuak jasotzeko eta igortzeko tresna bakarra.

2. Erregistro elektronikoa dagozkion prozedura eta jarduketak kontsultagai egonen dira Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa.

3. Erregistro elektronikoa dokumentuak aurkezteko bitarteko telematikoa erabiltzen ahalko dira, Legebiltzarraren egoitza elektronikoa jarritako sarbidea dela medio, erregelamendu honetan araututako moduan.

Legebiltzarrarekiko harremanetan bitarteko telematikoa erabiltzera behartuak ez dauden pertsonak idazkiak elektronikoki aurkezten ahalko dituzte, baina Parlamentuko erregistroan paperean aurkezteko aukera ere izanen dute, zeinak bere gain hartuko baititu Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak erregistro gaitetarako arreta bulegoari esleitzen dizkion eskumenak. Horrela aurkeztutako dokumentuak digitalizatu egingen dira hurrengo artikuluan azaltzen den moduan.

4. Erregistroko idazpen bakoitzean honako hauek jarriko dira:

a) Idazpenaren zenbakia edo kodea, aurkezpen eguna eta ordua, eta, kasu bada, jasotze edo bidaltze eguna eta ordua.

b) Dokumentuak egin dituen pertsonaren edo organoaren identifikazio datuak, haien helbide elektronikoa eta, kasu bada, hartzailera.

c) Erregistratzen diren dokumentuen mota – gero Legebiltzarreko Mahaiak haiek kalifikatzea galarazi gabe –, eta dokumentuen edukiaren eta espediente zenbakiaren aipamena, ahal bada.

Erregistroko idazpenak eta, halakorik bada, dokumentazio osagarria berehala helaraziko zaizkie pertsona edo organo hartzaileei, dena delako izapidearen edo prozeduraren ondorioetarako.

**10. artikulua.** Erregistro elektronikoa dokumentuak onartzea

1. Nafarroako Parlamentuko erregistro elektronikoa onartuko du Parlamentuari berari edo haren organo bati zuzendutako dokumentuak aur-

kez daitezen, betiere haien eginkizunekin zerikusia badute.

2. Erregistro elektronikoa aurkezten diren dokumentuen hartzaileak beste administrazio publiko batzuk direnean, dokumentu horiek onartu egingen dira eta kasuan kasuko erregistrora bideratuko dira, bat etorri Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan eta bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin.

3. Formatu ez elektronikoa Parlamentuko erregistroan aurkezten diren idazki eta dokumentuak digitalizatu egingen dira erregistro elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoa aurkezleari itzuliko zaio, salbu eta araudiak ezartzen duenean Administrazioak zaindu behar dituela aurkeztutako dokumentuak, edo digitalizatu ezin den euskarri espezifikoaren batean nahitaez aurkeztu beharreko objektu edo dokumentuak aurkezten direnean.

4. Ez dira erregistratuko faxez, posta elektronikoz edo igorleen nortasuna eta dokumentuaren benetakotasuna egiaztatu ezin den beste edozein prozeduraz bidaltzen diren dokumentuak, kontrako xedapenik ezean.

5. Inguruabar hauetakoren bat duten idazkiak ere ez dira onartuko erregistroan:

a) Bat ez etortzea Legebiltzarrak fitxategi elektronikotarako onartutako formatuekin edo, halakorik ezean, estandarren katalogoa onesten duen elkarreragingarritasun arau teknikoan onartutakoekin.

b) Ez agertzea aurkezlearen izena, abizenak, deitura edo sozietate-izena, edo haren sinadura edo nortasun agiri nazionalaren zenbakia edo identifikazio agiri baliokidearena.

6. Hartzailea ez izatea Legebiltzarreko organo, kargudun instituzional edo administrazio-unitate bat. Azaldutako arrazoiengatik idazki bat onartzen ez denean, aurkezleak hartze-agiria eskatzeko eskubidea izanen du, jasorik gera daitezen idazkia aurkezteko ahalegina eta hura ez onartzearen arrazoiak.

7. Dauden tresna informatikoen eta komunikazio bideen arabera, tamainaren mugak edo bestelakoak ezartzen ahalko dira, aurkezten diren dokumentuak teknikoki bateragarriak izan daitezen zerbitzu eta prozeduren kudeaketa elektronikora erabiltzen diren aplikazio informatikoekin. Muga horiek ezarri gero, tamainagatik baztertutako dokumentuak beste bide batzuetatik aurkezteko mekanismoak eskainiko zaizkie interesdunei. Aldez aurretik dokumentuak ziurtasunez identifikatuko dira beren laburpen kriptografikoaren bidez.

8. Baztertzen ahalko dira kode maltzurra dararmaten dokumentu elektronikoak eta sistemen osotasuna edo segurtasuna hondatzen ahal duen gailu batean aurkezten direnak. Horren berri emanen zaio dokumentua aurkeztu duen pertsonari.

**11. artikulua.** Erregistro elektronikoa kudeaketa eta segurtasuna

1. Kudeaketa Parlamentarioaren Atala da erregistro elektronikoa kudeatzeko ardura duen organoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetako eta Teknologiako Zerbitzua arduratzen da Nafarroako Parlamentuko erregistro elektronikoa segurtasunaz, eta informazioaren eskuragarritasuna, benetakotasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna eta kontserbazioa bermatzeko mekanismoak ezartzen ditu.

**12. artikulua.** Erregistro elektronikorako sarbidea, horren funtzionamendua eta dokumentuen aurkezpena

1. Nafarroako Parlamentuko erregistro elektronikorako sarbidea Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa jarritako esteka izanen da. Helbide horretan zerrenda batean agertuko dira euskarri, bitarteko eta aplikazio informatiko, elektronikoa edo telematikoa bateragarriak, dokumentuen harrera eta irteerarako erabiltzen ahal direnak.

2. Erregistro elektronikoa urteko egun guztietan eta egunaren hogeita lau orduetan aurkezten ahalko dira dokumentuak, ezinbesteko arrazoi teknikoengatik gerta daitezkeen etenaldiak gorabehera. Etenaldien gaineko informazioa emanen da Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa.

3. Erregistro elektronikoa automatikoki igorriko du mezu bat dokumentua hartu izana baieztatzeke, datu hauekin:

a) Aurkezpena erregistro elektronikoa egin izanaren identifikazioa.

b) Erregistroko sarrera bat izatearen identifikazioa.

c) Banakako erregistroaren zenbakia edo kodea.

d) Aurkezpen data eta ordua, eta sistemak emandako ordena zenbakia.

e) Aurkeztutako idazkiaren kopia.

4. Erabiltzaileari ohartarazi beharko zaio ezen, aurreko paragrafoan aurreikusitako baieztatze-meza jaso ezean edo transmisioan huts edo akatsen bat gertatu dela dioen mezua jasoz gero, ulertu beharko duela ez dela agiririk jaso erregis-

tro elektronikoan, eta hurrengo une batean edo beste bitarteko batzuk erabiliz egin beharko duela aurkezpena.

5. Arrazoi teknikoengatik erregistro elektronikoaren funtzionamendua eteten denean, etenaldia aurretik iragarri behar da lehenbailehen, eta ordeztu zer bide erabiltzen ahal diren adierazi behar da. Etenaldian eperen baten amaiera suertatzen bada, ulertuko da epea luzatu egiten dela, etenaldiak iraun duen denboraz.

6. Erregistro elektronikoan dokumentu parlamentarioak aurkezten ahalko dira bakarrik Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofizialean, zeina Legebiltzarreko Mahaiak ezartzen baitu, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoari jarraituz.

Erregistroaren ordutegitik kanpo jasotako dokumentu parlamentarioak hurrengo egun baliodunearan aurkeztuzat joko dira, aipatu erregelamenduan ezarritako epeak edo ezartzen diren beste epe batzuk betetzeari dagokionez.

7. Arau orokor gisa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean epeak kontatzeko ezarritako arauak erabiliko dira, baina horien gainetik lehenetsiko dira Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua egintza parlamentarioetarako ezarritako espezialitateak.

**13. artikulua.** Erregistro elektronikora sartzeko eta hura erabiltzeko baldintza teknikoak

Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoan eskura egonen da Nafarroako Parlamentuko erregistro elektronikoan dokumentuak aurkezteko zer nabigatzaile erabil daitezkeen eta erantsitako fitxategiek zer formatu eduki dezaketen erakusten duen zerrenda.

#### IV. TITULUA

##### Identifikazioa, autentifikazioa eta sinadura elektronikoa

**14. artikulua.** Egoitza elektronikoaren identifikazioa

Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoa sinadura elektronikoaren sistemaren bidez identifikatuko da, gailu seguruaren ziurtagirian edo bitarteko baliokide batean oinarrituta, egoitzaren ziurtagiri elektronikoa bat erabiliz.

**15. artikulua.** Identifikaziorako, autentifikaziorako eta sinadura elektronikorako sistema

Egoitza elektronikoan argibideak emanen dira dokumentuak eta eskaerak aurkezteko erabili beharreko sinadura elektronikoa babesten duten

ziurtagiri-zerbitzuen emaileen eta ziurtagiri elektronikoen zerrendaz.

**16. artikulua.** Zigilu elektronikoaren sistemak

Nafarroako Parlamentuak zigilu elektronikoaren sistemak erabiltzen ahalko ditu administrazio-jardun automatizaturako, 38. artikuluan zehazten den eran.

**17. artikulua.** Egiaztapen kode seguruaren sistemak

Nafarroako Parlamentuak dokumentuak egiaztatzeko kode seguruaren sistemak erabiltzen ahalko ditu jarduketa automatizatueta.

Egiaztapen kode segurua bakarra izanen da dokumentu bakoitzerako. Loteslea izanen da Nafarroako Parlamentuarentzat eta, hala badagokio, dokumentuaren sinatzailearentzat. Egoitza elektronikora sartu eta dokumentuaren osotasuna egiaztatzeko modua eman beharko da beti.

Egiaztapen kode segurua aplikatzekoa zaien dokumentuak eta jarduketa automatizatuak jasoko dira erregelamendu honetan aurreikusten den dokumentu elektronikoen kudeaketari buruzko politikan.

**18. artikulua.** Parlamentarien eta Legebiltzarreko langileen sinadura elektronikoa

1. Nafarroako Parlamentuak erabakiko du zer ziurtagiri elektronikoa onartuko diren parlamentarien eta Legebiltzarreko langileen identifikaziorako eta sinadurarako.

2. Parlamentariak eta atxikiak dituzten langileek dagozkien ziurtagiriak eskuratu behar dituzte beren lanean aritzeko. Laguntza eskatzen ahal diete Legebiltzarreko langileei ziurtagiri horiek eskuratu, instalatu eta erabiltzeko.

**19. artikulua.** Egoitza elektronikoaren erabiltzaileen identifikazio elektronikokoaren motak

1. Pertsona fisiko eta juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko entitateak, Nafarroako Parlamentuarekiko harremanetan, Konfiantzako Zerbitzu Elektronikoaren Emaileen Zerrendako zerbitzu-emaileetako edozeinek egindako ziurtagiri elektronikoa erabiltzen ahalko dute (Eraldaketa Digitaleko Ministerioak egiten duen zerrenda hori), bai eta Administrazio parlamentarioak onartzen duen sinadura elektronikoa aurreratuko sistemak ere. Sistema horiek zein diren eta zer prozeduratan onartzen diren zehazteko, sinadura elektronikoa eta ziurtagiriei buruzko politika prestatuko da hurrengo artikuluan adierazten den eran.

2. Nafarroako Parlamentuak zilegi izanen du identifikazio elektronikorako sistemen erabileraren

ondoriozko datu pertsonalak tratatzea, batez ere sinadura egiaztatzearen ondoriozkoak.

**20. artikulua.** Sinadura elektronikoari eta ziurtagiriei buruzko politika

1. Sinadura elektronikoari eta ziurtagiriei buruzko politikan, sinadura elektronikoak sortu, baliozkotu eta kontserbatzeko prozesuak zehaztuko dira, eta adieraziko da zer ezaugarri eta betekizun bildu behar dituzten sinadura elektronikorako sistemek, ziurtagiriek, denbora-zigiluko zerbitzuek eta sinaduren beste euskarri batzuek.

2. Sinadura elektronikoari eta ziurtagiriei buruzko politika bat etorriko da elkarreragingarritasunerako eskema nazionalean eta hura garatzeko arauetan ezarritakoarekin.

3. Sinadura elektronikoari eta ziurtagiriei buruzko politika Idazkaritza Nagusiaren ebazpen batez onetsiko da, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko.

## V. TITULUA

### Dokumentu elektronikoen kudeaketa

**21. artikulua.** Dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika

1. Nafarroako Parlamentuan dokumentu elektronikoak kudeatzeko politikak dokumentu elektronikoak kudeatzeko irizpideak ezarriko ditu eta Nafarroako Parlamentuko dokumentuen kudeaketarako eta artxiborako sistema orokorraren esparruan sartuko da. Legebiltzarreko Mahaiak onetsiko ditu sistema horren arauak.

2. Nafarroako Parlamentuko dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika Idazkaritza Nagusiaren ebazpen batez onetsiko da, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko.

**22. artikulua.** Dokumentu elektronikoa

1. Dokumentu elektronikotzat jotzen da euskari elektronikoko batean formatu jakin baten arabera artxibatuta dagoen eta bereiz identifikatzen eta tratatzen ahal den informazioa, edozein motatakoa izanik ere.

2. Dokumentu elektronikoko guztiek honako hauek bilduko dituzte:

a) Edukia, hau da, dokumentuko informazioa osatzen duten datuen multzoa.

b) Identifikazio datuak, dokumentua indibidualizatu ahal izateko, ezertan galarazi gabe hura espediente elektronikoko batean sartzea.

c) Sinadura elektronikoa/k.

d) Denboraren erreferentzia; agiriaren ezaugarriek hala eskatzen dutenean, denbora erreferentzia hori bitarteko elektronikoz bermatuko da.

e) Metadatuak, dokumentu elektronikoari lotzen zaizkionak, dokumentuak kudeatzeko politikan ezarritako gutxienezkoen arabera. Dokumentu edo espediente elektronikoko bati metadatu batzuk lotuz gero, horietan ezin izanen da aldaketarik egin prozedurako hurrengo faseetan, salbu eta akats eta hutsuneak zuzentzeko beharrezkoak direnak, eta horiek beti jasorik utzita.

3. Dokumentu elektronikoen osagaiak baliozkotasuna ematen diote eta haren benetakotasuna, fidagarritasuna, osotasuna eta denboran zeharreko eskuragarritasuna bermatzen dituzte.

4. Dokumentu elektronikoen dauden fitxategien formatuak bat etorriko dira kasuan kasuko elkarreragingarritasun arau teknikoan eta Parlamentuko Mahaiak berriaz onesten dituen arauetan ezarritako formatuekin.

5. Beste formatu batzuk erabiltzen ahalko dira horretarako arrazoi bereziak daudenean, baina beti mantendu behar dira dokumentuaren eta bere metadatuaren arteko loturak.

6. Nafarroako Parlamentuak aldatzen ahalko du jasotako dokumentuen formatua, horren berri jasorik utzita, dokumentuen benetakotasuna, fidagarritasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko. Aldiz, ezin izanen du aldatu dokumentuen funtsezko edukia.

**23. artikulua.** Espediente elektronikoa

1. Espediente elektronikoa prozedura jakin bati dagozkion dokumentu elektronikoen multzoa da.

2. Espedienteak igorri orde, espediente elektronikoa eskura jartzen ahalko da, ondorio guztietarako.

3. Dokumentu elektronikoak kudeatzeko politikaren arabera izapidetzeaz arduratzen den organoaren ardura izanen da espediente elektronikoa eratzea.

**24. artikulua.** Espediente elektronikoen osagaiak

Espediente elektronikoen osagai hauek izanen dituzte:

1. Dokumentu elektronikoak; horietako bakoitza zenbait espedientetako izan daiteke.

2. Aurkibide elektronikoa; espediente elektronikoen osotasuna bermatzen du eta behar denean hura berreskuratzea ahalbidetzen du.



3. Administrazio, organo edo entitate jarduleak aurkibide elektronikoan jarritako sinadura; arau honetan aurreikusitako sistemak erabiliko dira sinatzeko.

4. Espediente elektronikoaren metadatuak.

**25. artikulua.** Dokumentu elektronikoaren kopiak

Dokumentu elektronikoak kudeatzeko politikan ezarriko dira Nafarroako Parlamentuaren esparruan dokumentu elektronikoaren gainean egin beharreko kopia-eragiketak.

**26. artikulua.** Digitalizazioaren bitartez dokumentu elektronikoak sortzea

1. Nafarroako Parlamentuak digitalizazioak egiten ahalko ditu, paperean edo bestelako euskarri ez elektroniko batean dagoen dokumentu batetik kopia elektroniko autentikoak sortu ahal izateko, fitxategi elektroniko batean edo batzuetan; fitxategi horiek jatorrizko dokumentuaren irudi zehatz eta osoa edukiko dute kodetuta, eta dokumentu elektronikotzat joko dira.

2. Dokumentuak digitalizatzen direnean kudeaketa sistemara sartzeko, Nafarroako Parlamentuko dokumentu elektronikoak kudeatzeko politikan ezarritakoa beteko da, bai eta dokumentuen digitalizazioari buruzko eta dokumentu elektronikoari buruzko elkarreragingarritasun arau teknikoetan ezarritakoa ere.

**27. artikulua.** Artxibo Elektronikoa

1. Nafarroako Parlamentuko Artxibo Elektronikoa sortzen da, dokumentu eta espediente elektroniko eta mistoen gordailu seguru eta zentralizatu izan dadin, Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren mendean eta harekin bat eginda.

2. Izapidetzen diren espedienteak eta dokumentuak Artxibo Elektronikora transferituko dira Nafarroako Parlamentuko dokumentuak kudeatzeko politikan eta kontserbazio egutegietan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Parlamentuko Artxiboari buruzko araudiari jarraituz.

3. Artxibo Elektronikoa dokumentuen osotasuna, benetakotasuna, konfidentzialtasuna, kalitatea, babesa, sarbidea, eskuragarritasuna eta kontserbazioa bermatuko ditu.

**28. artikulua.** Jatorrizko dokumentuak ezabatzea

1. Kopia elektroniko autentikoak egin eta gero, paperean edo bestelako euskarri batean dauden jatorrizko dokumentu eta kopia autentikoak suntsitzen ahalko dira, dokumentu elektronikoak kudeatzeko politikan ezartzen den eran. Indarrean dau-

den administrazio-prozeduretan, jatorrizko dokumentu horiek interesdunari itzuliko zaizkio.

2. Ez dira inoiz suntsituko balio historiko edo artistikoa edo kontserbatu eta babesteko moduko izaera berezia duten dokumentuak.

3. Parlamentuko Mahaiak hala erabakitzen duenean, garrantzi bereziko dokumentuen kopia eginbidetuak gordetzen ahalko dira paperean, segurtasun neurri osagarri gisa.

## VI. TITULUA

### Prozeduren kudeaketa elektronikoa

**29. artikulua.** Interesdunek sarbidea izatea elektronikoki kudeatutako prozeduren tramitazio-egoerara

1. Aurretik bere burua identifikatuta, edozein interesdunek ezagutzen ahalko du espediente elektronikoaren tramitazio-egoera, interesdun edo baimendutako ordezkari gisa ageri bada espedientean. Horretarako, sarbide mugatuko zerbitzu elektroniko batera sartu beharko du egoitza elektronikoaren bitartez.

2. Espedienteen tramitazio-egoerari buruzko informazioak barnean hartuko du gauzatutako izapide-egintzen gaineko informazioa. Izapide horien edukia adieraziko da, bai eta eman diren eguna ere.

3. Aurreko paragrafoetan deskribatutako informazioaz gain, sarrerako erregistro elektronikoaren bitartez aurkeztu dituzten dokumentu, komunikazio eta eskabide guztien zerrenda eskuratzen ahalko dute interesdunek.

**30. artikulua.** Jakinarazpen elektronikorako bitartekoak eta sarbideak

1. Nafarroako Parlamentuak jakinarazpen elektronikoak egiten ahalko dizkie halakoak jasotzera behartutako pertsoneri, bai eta berariaz hala eskatzen duten pertsoneri ere. Horretarako, bide hauek erabiliko ditu:

a) Jakinarazpena eskura jartzea Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoan.

b) Jakinarazpena eskura jartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako jakinarazpen elektronikoaren sisteman.

c) Jakinarazpena eskura jartzea beste edozein administrazio publikoren egoitza elektronikoan edo hark prestatutako helbide elektronikoan, aldeztu aurretik hitzarmena sinatuta Parlamentuaren eta administrazio horren artean.

2. Aurreko paragrafoan jakinarazpen elektronikorako aurreikusten diren bideetako bat edo

gehiago erabiltzen ahalko dira, eta gauzatzen den lehenengo jakinarazpenetik aurrera izanen du eraginkortasuna jarduketak.

**31. artikulua.** Jakinarazpen elektronikoen hartzaileak

1. Nafarroako Parlamentuarekiko harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzera behartuak ez dauden pertsonak jakinarazpen elektronikoa jaso nahi dituztela adierazten ahalko diote Legebiltzarrari, bai eskabide jakin bat aurkezterakoan, bai modu orokorrean. Edonola ere, Nafarroako Parlamentuak igortzen dituen jakinarazpen guztietan aplikatuko da aukera hori. Noiznahi errebokatzen ahalko da aukera, baina ez dira balio gabetako errebokatu aurretik igorritako jakinarazpenak.

2. Harremanetan bitarteko telematikoa erabiltzera behartutako pertsonak eta aurreko paragrafoan aipatutako aukera egiten dutenek posta elektronikoko helbide bat edo telefono mugikorraren zenbaki bat ematen ahalko diote Nafarroako Parlamentuari, jakinarazpenak eskura jarri direla ohartaraz diezaioten. Datu hori eman ezean, Parlamentuak eskura duen komunikazio bidea erabiliko du interesdunarekin harremanetan jartzeko. Abisua ez da inoiz beharrezkoa izanen behar bezala igorritako jakinarazpen elektronikoa bat baliozkoa izan dadin.

3. Nahiz eta Parlamentuarekiko harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzera behartuak ez egon, Nafarroako Parlamentuko jakinarazpen elektronikoen sisteman ofizioz alta ematen ahalko zaie administrazio-prozedura batean interesdun diren pertsonak, jakinarazpen elektronikoa haien eskura jartzeko, ezertan galarazi gabe paperezko kopia bidaltzea.

**32. artikulua.** Jakinarazpen elektronikoen ondorioak

1. Hartzaileak ikusten duen unetik sortuko ditu ondorioak jakinarazpen elektronikoa, edo bestela, hartzaileak ikusten ez badu, eskura jarri zaion egunetik 10 egun natural igarotakoan, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

2. Salbuetsita geratzen dira Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan eta hura garatzen duten arauetan aurreikusitako egintza eta prozedura parlamentarioen jakinarazpenak; horrelakoek parlamentarioen eskura jarri eta hurrengo egun balioduna amaitutakoan sortuko dituzte ondorioak, salbu eta hartzaileak epe hori bukatu aurretik ikusten badu jakinarazpena.

**33. artikulua.** Nafarroako Parlamentuko jakinarazpen elektronikoen sistema

1. Parlamentuaren egoitzan jakinarazpen elektronikorako zerbitzurik egonez gero, Kudeaketa Parlamentarioaren Atala arduratuko da jakinarazpen elektronikoen sistema horren mantentzeaz eta funtzionamenduz, eta beraren edukien eta zerbitzuen antolaketa koordinatuko du.

2. Honela sartzten ahalko da jakinarazpen elektronikoen sistemara:

a) Interesduna, edo haren ordezkaria, IV. tituluan aurreikusitako identifikazio elektronikorako bideetako bat erabiliz sartzten ahalko da.

b) Jakinarazpena eskura emateko gaitutako langile publikoa, kasua bada, sistemara sartzten ahalko da baldin eta interesdunak edo haren ordezkariak erregistrora agertu eta eskatzen badu une horretan egin diezaiotela komunikazio edo jakinarazpen pertsonala.

3. Parlamentuak lan egingen du Estatuko Administrazio Orokorrak jakinarazpenetarako eskaintzen dituen soluzio teknologikoekin bateratze aldera, horrela herritarrek errazago eskuratu ahal ditzaten jakinarazpen elektronikoa beste bide batzuetatik.

**34. artikulua.** Jakinarazpen elektronikoa eta hura hartzeari uko egin izana jasota uzteko eta horien iraupenerako bermeak

1. Nafarroako Parlamentuak parlamentariari posta elektronikoz jakinaraziko dizkie bilkuretako deialdiak, bai eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan eta hura garatzen duten arauetan aurreikusitako ekitaldi eta ofizio parlamentarioak ere, behinola Parlamentuak ordezkari hautesiei emandako posta-kontuetara mezu elektronikoa bana bidaliz. Jakinarazpen horiek erregelamendu honen 32.2 artikuluan aurreikusitako ondorioak izanen dituzte.

2. Parlamentuak jakinarazpen elektronikorako erabiliko dituen bitartekoek administrazio-jakinarazpenetarako behar diren bermeak eskainiko dituzte, artikulua honetan eta aplikatzekoa den beste edozein arautan ezarritakoari jarraituz.

3. Jakinarazpen elektronikorako bitartekoek argi adieraziko dute jakinarazpen elektronikoa bakoitza zer egunetan eta ordutan jarri den eskuragarri, edozein izanik ere jakinarazpenaren egoera une bakoitzean.

4. Administrazio-egintzen jakinarazpen elektronikoa egoera hauetako batean egonen dira:



a) Irakurri gabe: behin jakinarazpena hartzailearen eskura jarritakoan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epean egoera aldatzen ez duen bitartean.

b) Irakurrita: hartzaileak jakinarazpenaren edukia ikusitakoan; jasota geldituko da zer egunetan eta ordutan ikusi duen.

c) Baztertuta: hartzaileak jakinarazpena baztertutakoan; jasota geldituko da zer egunetan eta ordutan baztertu duen. Hartzailea harremanetarako bitarteko elektronikoak erabiltzera behartua badago edo bitarteko horiek aukeratu baditu bere borondatez, jakinarazpena baztertu egin duela ulertuko da baldin eta hura eskura jarri zitzaion egunetik hamar egun natural igarotzen badira hartzaileak edukia ikusi gabe. Edozein modutan baztertzen duela ere, irakurri izan balu bezalako ondorioak sortuko dira administrazio-prozeduran.

d) Iraungita: jakinarazpenaren hartzailea ez badago bitarteko elektronikoak erabiltzera behartua eta ez badu bere borondatez bide hori aukeratu, jakinarazpena iraungitzat joko da jakinarazpenak egiteko oinarrizko araudian ezarritako epea igarotzen bada interesdunak edukia ikusi gabe.

5. Hartzaileak jakinarazpenaren edukia ikusi aurretik, adieraziko zaio jakinarazpena baztertzen ahal duela, baina kasu horretan jakinarazpena gauzatatutaz emanen dela.

6. Dauden egoeran daudela, jakinarazpenek gutxienez bost urte iraunen dute sisteman, eta sistema mantentzeko arrazoi teknikoengatik bakarrik ezabatuko dira ofizioz, edota metatutako jakinarazpenen bolumen handiak gehiegizko kostua sortzen duenean. Sisteman jasorik geldituko dira jakinarazpenen trazabilitatea eta ezabatze data.

**35. artikulua.** Administrazio-jardun automatizatua

1. Nafarroako Parlamentuak administrazio-jardun automatizaturako mekanismoen erabilera sustatuko du informazio sistema batek egin dezakeenean jarduketa bat, langile publiko batek zuzenean esku hartu gabe; bereziki, honako kasu hauetan:

a) Jasotze hutseko egintzak. Egintza bat jasotze hutsa dela ulertuko da xede bakarra badu Parlamentuko ingurune elektronikoetan gertatutako egitateak edo jarduketak ziurtatzea, edo Parlamentuko sistema informatikoetan dagoen informazioa ziurtatzea.

b) Izapide hutseko egintzak. Egintza bat izapide hutsa dela ulertuko da administrazio-prozedu-

rako eskakizun formalak betetzen baditu edo prozeduran aurrera egitea ahalbidetzen badu, borondate-adierazpena izan gabe eta eskubide edo betebehar berririk sortu gabe; esaterako, dokumentuen kopiak egitea, administrazio-ebazpenak jakinaraztea, edo espedienteak itxi edo lekualdatzea.

c) Interesdunak aurretiaz ezagutzen ahal duen informazioari irizpide objektiboak, erregelamenduz onetsiak eta publikoki ezagunak aplikatuta ebazten diren egintzak.

2. Egintza bat administrazio-jardun automatizaturako mekanismoen bitartez gauzatu ahal izateko, alde aurretik berariaz onetsia izan behar da mekanismo horien aplikazioa dena delako jarduketa motarako, eta definituak izan behar dira erabili beharreko irizpideak, hala badagokio, eta egintza gainbegiratu behar duten organoak, hurrengo artikuluan ezartzen den bezala.

**36. artikulua.** Administrazio-jardun automatizatua onestea

1. Administrazio-prozedura jakin batean administrazio-jardun automatizaturako sistemak erabili ahal izateko, Parlamentuko Mahaiaren erabakia beharko da, eta honako hauek zehaztuko dira erabakian:

a. Zein prozedura edo jarduketa gauzatzen ahalko den metodo horren bidez, eta, kasua bada, zer irizpide erabiliko diren.

b. Parlamentuko zein organo arduratuko den administrazio-jardun automatizatua ahalbidetzeko soluzioa programatu eta mantentzeaz.

c. Parlamentuko zein organo arduratuko den zehaztapenak definitzeaz, soluzioaren funtzionamendua gainbegiratzeaz eta kalitatearen kontrola egiteaz.

2. Administrazio-jarduketa automatizatuak aurkaratzen ahalko dira, bidezkoa denean, dena delako prozedurarako eskumenak dituen Parlamentuko organoaren aurrean.

3. Administrazio-jardun automatizatua berehala aplikatuko zaien prozeduren zerrenda onesten da erregelamendu honen I. Eranskinean. Mahaiak beste jarduketa mota batzuk automatizatzea erabaki ahala, erabakiak eranskin horri batuko zaizkio.

**37. artikulua.** Prozedura automatizatuen garapena

1. Administrazio-jardun automatizaturako sistema bat erabiltzeko prest jarri aurretik, soluzioaren

diseinuaren ardura duen organoak elementu hauek zehaztu beharko ditu:

a. Prozedura izapidetuko duen plataforma edo sistema.

b. Sarbidea.

c. Nola egingen diren erabilitako kodearen berri-kuspenak eta auditoretzak aldi behin.

d. Zein zigilu elektronikorekin sinatuko den, 38. artikulua ezartzen duen moduan.

e. Ukitutako jarduketarako erabakiren bat hartu behar bada, hauek ere zehaztu beharko ditu:

i. Erabaki horren oinarri izanen diren irizpide objektiboak.

ii. Nola eguneratu edo berrikusiko diren irizpide horiek, eta zer mekanismoren bitartez emanen den aditzera edozein aldaketa.

iii. Interesdunei zer baliabide eskaintzen zaizkien ezarritako betekizunak betetzen dituzten ebaluatzeko.

2. Elementu horiek deskribatzen dituen dokumentuaren bertsio berriena kontsultagai egonen da egoitza elektronikoko tramitazioaren ingurunean.

**38. artikulua.** Sinadura elektronikorako mekanismoak

1. Administrazio-jarduketa automatizatua, betiere, interesdunen esku jarriko den dokumentu elektronikoko batean jasoko da.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako dokumentu elektronikoa sinaturik egonen da jarduketaren ardura duen organoari edo Parlamentuari berari lotutako zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoko batekin.

3. Dokumentu elektronikoa egiaztapen kode segurua ere edukitzen ahalko du, paperean kopia autentiko gisa inprimatu ahal izateko eta ondoren Parlamentuaren egoitza elektronikoa egiaztatuz ahal izateko.

**Lehen xedapen iragankorra.** Egoitza elektronikoa abian jartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabakiko du noiz jarriko den abian egoitza elektronikoa, administrazio elektronikoa ezartzen den unearan arabera.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Erregelamenduak indarra hartu baino lehen hasitako espedienteak izapidetzea

Erregelamendu honek indarra hartu baino lehen izapidetzen hasi diren espedienteetan, bali-teke dokumenturen batzuk paperean egotea. Espediente horiek espediente hibrido gisa izapidetzen ahalko dira azkeneraino, baina arau honek indarra hartu ostean eransten diren dokumentu guztiak euskarri elektronikoa erantsi beharko dira.

Espediente hibridoa prozedura jakin bati dagozkion dokumentu elektronikoen eta paperekoen multzoa da. Espediente hibrido baten kudeaketan eta kontserbazioan kontuan hartuko da prozedura berean euskarri desberdinetako dokumentuak daudela, eta dokumentu bakoitzaren identifikazio bakarra eta nahastezina bermatu beharko da. Espedientearen bertsio elektronikoa paperean dauden dokumentuen erreferentzia eta gutxieneko metadatuak eduki beharko ditu.

Espediente hibridoetan paperezko euskarrian dauden dokumentuak nahitaez digitalizatu beharko dira ezarian-ezarian. Betiere, espediente itxi aurretik burutu beharko da digitalizazioa.

**Azken xedapenetako lehena.**

Idazkaritza Nagusiari baimena ematen zaio beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan erregelamendu hau garatzeko eta aplikatzeko.

**Azken xedapenetako bigarrena.**

Erregelamendu hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Parlamentuko Mahaiak erabakitzen duenean hartuko du indarra, administrazio elektronikoa ezarpenaren arabera.

**I. eranskina**  
**Administrazio-jardun automatizatua aplikatuko zaien prozeduren taula**

**1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren sinadura automatizatua**

Soluzioa programatzeko eta mantentzeko ardura duen organoa, 36.1.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako:	Sistemen Arloa
Zehaztapenak definitzeko, soluzioa gainbegiratzeko eta kalitatea kontrolatzeko ardura duen organoa, 6.1.c) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako:	Parlamentuko Mahaiko Idazkaritza
Sinadura elektronikorako erabiliko diren mekanismoak, 38. artikulua ezartzen duenaren arabera:	Parlamentuko Mahaiko Idazkaritzari lotutako zigilu elektronikoaren ziurtagiri bat erabiliko da.

**2. Sarrera erregistroan dokumentuak hartu izanaren agiriak automatikoki sortzea**

Soluzioa programatzeko eta mantentzeko ardura duen organoa, 36.1.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako:	Sistemen Arloa
Zehaztapenak definitzeko, soluzioa gainbegiratzeko eta kalitatea kontrolatzeko ardura duen organoa, 36.1.c) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako:	Parlamentuko Mahaiko Idazkaritza
Sinadura elektronikorako erabiliko diren mekanismoak, 38. artikulua ezartzen duenaren arabera:	Parlamentuko Mahaiko Idazkaritzari lotutako zigilu elektronikoaren ziurtagiri bat erabiliko da.

**3. Paperezko dokumentuen kopia autentiko elektronikoak automatikoki sortzea digitalizazio seguruko sistemen bitartez**

Soluzioa programatzeko eta mantentzeko ardura duen organoa, 36.1.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako:	Sistemen Arloa
Zehaztapenak definitzeko, soluzioa gainbegiratzeko eta kalitatea kontrolatzeko ardura duen organoa, 36.1.c) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako:	Parlamentuko Mahaiko Idazkaritza
Sinadura elektronikorako erabiliko diren mekanismoak, 38. artikulua ezartzen duenaren arabera:	Parlamentuko Mahaiko Idazkaritzari lotutako zigilu elektronikoaren ziurtagiri bat erabiliko da.



